



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



A LA MESA DE LA COMISIÓN DE
DERECHOS HUMANOS, IGUALDAD Y
JUSTICIA

Los Grupos abajo firmantes, presentan, al amparo del vigente Reglamento, la presente Proposición no de Ley para su debate y aprobación en la Comisión de Derechos Humanos, Igualdad y Justicia, relativa a garantizar la salud sexual y reproductiva en contextos de crisis humanitarias.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En 1994, el Programa de Acción de la Conferencia Internacional sobre la Población y el Desarrollo (CIPD) reconoció por primera vez la importancia de los servicios de salud sexual y reproductiva para las personas afectadas por las crisis humanitarias, en particular las mujeres y las niñas, y de su protección contra la violencia sexual y de género (VSG).

En las últimas dos décadas, las iniciativas a nivel nacional e internacional han contribuido a mejorar la disponibilidad y accesibilidad de la salud y los derechos sexuales y reproductivos (SDSR) entre las poblaciones afectadas por conflictos y desastres en todo el mundo. En particular, el Marco de Sendai para la Reducción del Riesgo de Desastres 2015-2030 incluyó la accesibilidad de la SDSR como un componente crítico para fortalecer la resiliencia individual y comunitaria. En mayo de 2016, la primera Cumbre Humanitaria Mundial situó el empoderamiento de las mujeres y las niñas y la acción catalizadora para lograr la igualdad de género en las intervenciones humanitarias entre las cuestiones prioritarias para el sector; un total de 70 compromisos individuales se centraron en la SDSR.


GIZA ESKUBIDEEN, BERDINTASUNAREN
ETA JUSTIZIAREN BATZORDEKO
MAHAIARI

Behean sinatzen duten taldeek, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, legez besteko proposamen hau aurkezten dute; Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Justiziaren Batzordean eztabaidatu eta onar dadin, krisi humanitarioko testuinguruetan sexu- eta ugalketa-osasuna bermatzeari buruzkoa.

ZIOEN AZALPENA

1994an, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programak lehen aldiz onartu zuen sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuek duten garrantzia krisi humanitarioek eragindako pertsonentzat, batez ere emakumeentzat eta neskentzat, eta haiek sexu- eta genero-indarkeriaren aurka babestearen garrantzia.

Azken bi hamarkadetan, nazioko eta nazioarteko ekimenek lagundu dute osasunaren eta sexu- eta ugalketa-eskubideen erabilgarritasuna eta eskuragarritasuna hobetzen mundu osoko gatazken eta hondamendien eraginpean dauden biztanleen artean. Bereziki, Hondamendien Arriskua Murrizteko Sendai Esparruak (2015-2030) barne hartu zuen osasunaren eta sexu- eta ugalketa-eskubideen sistemaren irisgarritasuna osagai kritiko gisa erresilientzia indibiduala eta komunitarioa indartzeko. 2016ko maiatzean, Munduko lehen goi-bilera humanitarioak emakumeen eta nesken ahalduntzea eta esku-hartze humanitarioetan genero-berdintasuna lortzeko ekintza katalizatzailea sektorearentzat lehentasunekoak diren gaien artean kokatu zituen; guztira 70 konpromiso indibidual bildu ziren osasunaren eta sexu- eta ugalketa-eskubidetan.





Más recientemente, en noviembre de 2019, en la Cumbre de Nairobi sobre la CIPD+25, se defendió el derecho a la atención de la SSR en contextos de crisis humanitarias. Por primera vez, un número significativo de países europeos (entre ellos España), reconocieron que poner fin a las prácticas nocivas en contextos de crisis humanitaria es un elemento fundamental para lograr un mejor acceso a la SDR y la igualdad de género.

Sin embargo, a pesar de los notables avances, los servicios de SDR en entornos humanitarios siguen siendo insuficientes en general.

Vivimos en una época en la que las crisis están provocando el mayor desplazamiento de personas desde la Segunda Guerra Mundial: más de mil millones de personas viven en países afectados por crisis humanitarias de largo recorrido. Y estos países son precisamente el hogar de más de la mitad de la población que vive en la pobreza en todo el mundo.

Más de 26 millones de mujeres y de chicas en edad reproductiva se han visto obligadas a abandonar sus hogares, huyendo de catástrofes naturales, sequías, hambrunas y guerras, por lo que ahora viven en campamentos de personas refugiadas y en zonas de crisis. En medio de la terrible devastación que supone toda crisis humanitaria, las personas necesitan ante todo y sobre todo seguridad y protección: los servicios de salud sexual y reproductiva pueden salvar las vidas de muchas mujeres y evitarles muchos sufrimientos.

El impacto global de la pandemia de COVID-19 ha agravado la situación de las personas que sobreviven en escenarios de crisis humanitarias existentes y emergentes. El número de mujeres y niñas en riesgo crítico va a seguir aumentando en la medida en que las situaciones humanitarias se


Berrikiago, 2019ko azaroan, CIPD+25ari buruzko Nairobiko goi-bileran, krisi humanitarioen testuinguruetan Sexu eta Ugalketa Osasunaren arreta jasotzeko eskubidea defendatu zen. Lehen aldiz, Europako herrialde askok (besteak beste, Espainiak) onartu zuten krisi humanitarioko testuinguruetan praktika kaltegarriak amaitzea funtsezko elementua dela osasun eta sexu- eta ugalketa-eskubideetara iristeko eta genero-berdintasuna lortzeko.

Hala ere, aurrerapen nabarmenak egin diren arren, osasunaren eta sexu- eta ugalketa-eskubideen zerbitzuak, oro har, ez dira nahikoak ingurune humanitarioetan.

Krisien ondorioz, Bigarren Mundu Gerraz geroztik jende gehien mugitzen ari den garaian bizi gara: mila milioi pertsona baino gehiago bizi dira ibilbide luzeko krisi humanitarioek jotako herrialdeetan. Eta herrialde horiek dira, hain zuzen ere, mundu osoan pobrezian bizi diren biztanleen erdiak baino gehiagoren etxeak.

Ugaltzeko adinean dauden 26 milioi emakume eta neska baino gehiagok etxetik alde egin behar izan dute, hondamendi naturaletatik, lehorteetatik, goseteetatik eta gerretatik ihesi; beraz, orain errefuxiatuen kanpamenduetan eta krisi-eremuetan bizi dira. Krisi humanitario orok dakarren hondamendi beldurgarriaren erdian, pertsonak batez ere segurtasuna eta babesa behar dute: sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuek emakume askoren bizitzak salba ditzakete eta sufrimendu asko saihestu.

COVID-19aren pandemiaren inpaktu globalak larriagotu egin du egungo eta sortzen ari diren krisi humanitarioetan bizi diren pertsonen egoera. Arrisku kritikoan dauden emakumeen eta neskatoen kopuruak gora egiten jarraituko du, egoera humanitarioek okerrera egiten duten



deterioren: la pandemia está teniendo un efecto devastador en mujeres y niñas que se enfrentan al riesgo de la violencia de género, además de provocar una reducción en los recursos dedicados a métodos anticonceptivos y abortos seguros.

Por servicios de salud sexual y reproductiva en situaciones de crisis entendemos el acceso a partos y a cuidados materno-infantiles seguros, así como el acceso a métodos anticonceptivos para evitar embarazos no planificados, abortos inseguros y enfermedades que podrían poner en peligro la vida de las mujeres y de sus familias (según el Fondo de Población de Naciones Unidas, en situaciones de crisis, existe la probabilidad de que una de cada cinco mujeres, en edad fértil esté embarazada).

En estos contextos, aumenta la vulnerabilidad de las mujeres y niñas de ser objeto de violencia sexual y de género (abuso sexual, violación -de niñas y niños-, violencia de pareja, acoso sexual, tráfico de mujeres y niñas y mutilación genital femenina (MGF)). Por ello, es importante trabajar también sobre la prevención, detección y gestión de estas violencias y garantizar el acceso a abortos seguros.

Otro aspecto importante a tener en cuenta en estas situaciones es la prevención y el tratamiento del VIH/SIDA y de otras infecciones de transmisión sexual (las mujeres y los y las jóvenes también se vuelven en contextos de crisis más vulnerables a la explotación y a la infección por VIH/SIDA -UNFPA, 2018), así como la protección de la diversidad en cuanto a orientación sexual e identidad de género.

Es ya tiempo de que los Gobiernos reconozcan y protejan el acceso a unos servicios básicos de salud sexual y

heinean: pandemiak eragin suntsitzailea izaten ari da genero-indarkeriaren arriskuari aurre egiten dioten emakume eta neskatoengan eta, gainera, metodo antisorgailuetan eta abortu seguruetan erabiltzen diren baliabideak murriztea eragiten du.

Krisi-egoeretan, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzutzat hartzen da erditzeak eta ama-haurren zaintza seguruak eskuratzea, bai eta planifikatu gabeko haurdunaldiak, segurtasunik gabeko abortuak eta emakumeen eta haien familien bizitza arriskuan jar dezaketen gaixotasunak saihesteko metodo antisorgailuak eskuratzea ere (Nazio Batuen Biztanleria Funtzaren arabera, krisi-egoeretan, adin ugalkorrean dauden bost emakumetik bat haurdun egoteko aukera dago).

Testuinguru horietan, areagotu egiten da emakumeek eta neskek sexu- eta genero-indarkeria jasateko duten urrakortasuna (sexu-abusua, bortxaketa – Neskatoak eta mutikoak –, bikote-indarkeria, sexu-jazarpena, emakumeen eta neskatoen trafikoa eta emakumeen genitalen mutilazioa). Horregatik, garrantzitsua da indarkeria horien prebentzioa, detekzioa eta kudeaketa lantzea, eta abortu seguruetarako sarbidea bermatzea.

Egoera horietan kontuan hartu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat GIB/HIESa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk prebenitzea eta tratatzea da (emakumeak eta gazteak ere GIB/HIESak eragindako infekzioa eta esplotazioa krisi-testuinguruetan ahulagoak bihurtzen dira – UNFPA, 2018), bai eta aniztasuna babestea ere, sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagokienez.

Garaia da gobernuek sexu- eta ugalketa-osasuneko oinarritzko zerbitzuak aitortzeko eta babesteko, Garapen Jasangarriaren



reproductiva, que cumplan con los Objetivos de Desarrollo Sostenible y que realmente "no dejen a nadie atrás".

En España, en el año 2020, un año marcado por la crisis mundial provocada por la pandemia COVID-19, la Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID) incrementó el monto total de fondos destinado a la acción humanitaria, alcanzando prácticamente la cifra de 75M€, un 36% más respecto al año 2019 frente a los (44,6M€ de 2019)

Del total de ayuda humanitaria de la AECID de 2020 (74,96 M€), la Oficina de Acción Humanitaria (OAH) ha desembolsado 69,37 M€ (el 92,54% del total) y la Dirección de Cooperación Multilateral, Horizontal y Financiera 5,59 M€ (el 7,45% del total a través de convenios, convocatoria de ONG e intervenciones multilaterales).

De toda esta ayuda no sabemos qué cantidad ha sido destinada al sector de la salud y mucho menos a la Salud Sexual y Reproductiva, ya que no hay disponible información al respecto.

Por lo que respecta a la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, eLankidetzak, los fondos destinados a proyectos de acción humanitaria para 2021, se han visto incrementados en un 38% respecto al ejercicio 2020 (10,5mill€ frente a los 6,5mill€ de 2020).

Además, eLankidetzak incluye, entre los enfoques transversales que deben ser integrados en los proyectos subvencionados, la equidad de género, considerando que "las intervenciones humanitarias no son neutras desde un punto de vista de género y que suponen una oportunidad para no reforzar las diferencias de género e, incluso, para poder reducirlas". Para alcanzar este enfoque exige, entre otros, que los proyectos incluyan diagnósticos de género, datos desagregados por sexo, y mecanismos específicos que garanticen la participación

Helburuak betetzeko eta benetan "inor atzean ez uzteko".

Espainian, 2020an, COVID-19 pandemiak eragindako mundu-krisiak markatutako urte batean, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak ekintza humanitariora bideratutako funtsen guztizko kopurua handitu zuen, ia 75M€-ra iritsiz, 2019an baino %36 gehiago (44,6M€, 2019an).

AECIDen 2020ko laguntza humanitario guztizkotik (74,96 M€), Ekintza Humanitarioko Bulegoak (OAH) 69,37M€ ordaindu ditu (guztizkoaren %92,54) eta Lankidetzak Aldeaniztun, Horizontal eta Finantzarioko Zuzendaritzak 5,59M€ (guztizkoaren %7,45 hitzarmenen bidez, GKEen deialdien bidez eta alde anitzeko esku-hartzeen bidez).

Laguntza horri guztiari buruz ez dakigu zenbat bideratu den osasunaren sektorera, eta are gutxiago sexu- eta ugalketa-osasunera, ez baitago horri buruzko informaziorik.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokionez, eLankidetzak, 2021erako ekintza humanitarioa proiektuetara bideratutako funtsak %38 handitu dira 2020ko ekitaldiarekin alderatuta (10,5 milioi euro, eta 2020an 6,5 milioi euro).

Gainera, diruz lagundutako proiektuetan txertatu behar diren zeharkako ikuspegiaren artean genero-ekitatearen sartzen du eLankidetzak, kontuan hartuta "esku-hartze humanitarioak ez direla neutroak genero-ikuspegitik, eta genero-desberdintasunak ez indartzeko eta, are gehiago, murrizteko aukera ematen dutela". Ikuspegi hori lortzeko, beharrezkoa da, besteak beste, proiektuetan genero-diagnostikoak, sexuaren arabera bereizitako datuak eta emakumeek proiektuaren fase guztietan parte hartzea bermatuko duten mekanismo espezifikoak sartzea.



de las mujeres en todas las fases del proyecto.

A pesar de esto de tener en cuenta el enfoque de género, y al igual que en el caso de la AECID, la Agencia no tiene publicada información estadística organizada que muestre que porcentaje de la Ayuda Humanitaria se destina al sector de la salud y, de manera más específica, a la Salud Sexual y Reproductiva.

En contextos de desastres naturales, conflictos armados y otras crisis humanitarias, generalmente las necesidades de servicios de salud sexual y reproductiva son relegadas a un segundo plano en favor de otros servicios. Sin embargo, la falta de atención a la salud sexual y reproductiva en estas situaciones contextos supone una causa importante de morbilidad y mortalidad.

Los derechos sexuales y reproductivos han sido reconocidos por la comunidad internacional como derechos humanos en declaraciones, convenciones y pactos de las Naciones Unidas y diferentes organismos internacionales. Por lo tanto, la SSR es como todos los demás derechos humanos, aplicable a toda persona refugiada, internamente desplazada o que habite en contextos humanitarios.

La comunidad global reconoce ya la importancia de la salud sexual y reproductiva y del respeto de los derechos en situaciones de crisis, a través de acuerdos internacionales y políticas nacionales. Estos acuerdos se han materializado también en el "Paquete de Servicio Inicial Mínimo" (PMSI) para salud reproductiva en situaciones de crisis: los estándares mínimos internacionalmente reconocidos de servicios que hay que asegurar ante el estallido de cualquier crisis para prevenir el exceso de la mortalidad y la morbilidad relacionadas con la salud reproductiva, particularmente entre mujeres.

Hala eta guztiz ere, genero-ikuspegia kontuan hartu arren, eta AECIDen kasuan bezala, Agentziak ez du estatistika-informazio antolaturik argitaratuta, eta horrek erakusten du laguntza humanitarioaren zer ehuneko bideratzen den osasun-sektorerara eta, bereziki, sexu- eta ugalketa-osasunera.

Hondamendi naturalen, gatazka armatuen eta beste krisi humanitario batzuen testuinguruetan, oro har, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuen beharrak bigarren mailan uzten dira beste zerbitzu batzuen mesedetan. Hala ere, egoera testuinguru horietan sexu- eta ugalketa-osasuna ez zaintzea morbilitatearen eta hilkortasunaren kausa garrantzitsua da.

Nazioarteko komunitateak giza eskubide gisa aitortu ditu sexu- eta ugalketa-eskubideak, Nazio Batuen eta nazioarteko hainbat erakunderen adierazpen, konbentzio eta itunetan. Beraz, Sexu eta Ugalketa Osasuna gainerako giza eskubide guztiak bezalakoa da, eta guztiei aplikatu dakieke: pertsona iheslariei, barruan desplazatuta daudenei edo testuinguru humanitarioetan bizi direnei.

Komunitate globalak dagoeneko onartzen du sexu- eta ugalketa-osasunaren eta krisi-egoeretan eskubideak errespetatzearen garrantzia, nazioarteko akordioen eta politika nazionalen bidez. Akordio horiek krisi-egoeretan ugalketa-osasunerako "hasierako Zerbitzu Gutxieneko Paketean" ere gauzatu dira: edozein krisik eztanda egiten duenean ziurtatu behar diren zerbitzuen gutxieneko estandarrak, ugalketa-osasunarekin lotutako gehiegizko heriotza-tasa eta morbilitatea prebenitzeko, bereziki emakumeen artean.





Por todo ello, los Grupos abajo firmantes presentan la siguiente PROPOSICIÓN NO DE LEY para instar al Gobierno Vasco a:

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten taldeek LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN hau aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzari honako hau eskatzeko:


- Reconocer, en el marco de la nueva Ley Vasca de Cooperación internacional, que los servicios de salud sexual y reproductiva son esenciales, garantizando su atención en contextos de emergencia y crisis humanitarias.
- Proporcionar información desglosada sobre las actuaciones financiadas en SSR y los resultados de las mismas.
- Nazioarteko Lankidetzarako Euskal Lege berriaren esparruan, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak funtsezkoak direla onartzea, larrialdi eta krisi humanitarioko testuinguruetan zerbitzu horien arreta bermatuz.
- Sexu eta Ugalketa Osasunaren bidez finantzaturako jardueri eta horien emaitzei buruzko informazio banakatua ematea.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 25a


EA-NV


EH BILDU


ES-SV


EP-SU